



**Dantza eta pertsonaren bilakaera.**- 'Divenire' ikuskizunak aho zabalik utzi zituen ostiralean Okendo plazara hurbildu ziren herritarrak. Breakdance, akrobaziak... disziplina anitzak nahastu zituzten dantzariak emanaldian hip-hop doinuak nagusi zituen konposizio musikal baten laguntzaz. Helburua, dantzariak bizi izan duten bilakaera erakustea, norberak bizi izan duena edo taldean gertatu diren gauzak. Izan ere, divenire hitzak 'izatera heldu' esan nahi baitu. Hori guztia, hiritar mugimenduak oinarri direla egiten dute dantzariak eta modu ikusgarrian gainera. Giro ederrean herritarrek ikuskizunaz gozatu zuten. Lasarte-Oriako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak elkarlanean antolatzen duten 'Lasarte-Oria dantzan' proiektuaren baitakoa zen ikuskizuna. Aste honetan, berriz, antzerkiak gozatu ahaliko da Okendo plazan. Ostegunean haurrei zuzendutako 'Sardina freskue' berbera berezia izango da eta ostiralean berriz, 'Txatarra' lana.

### 3 UDALBATZARRA Legealdiko lehen Udalbatzarra

Astearteko Udalbatzarrean Udal Gobernua aurrera eramateko erabakiak jakitera eman ziren. Jesus Zaballos alkateak alkateordeen, alkate eta zinegotzien soldaten, liberazioen eta Udal Batzorde buruen izenen berri eman zuen. Azken puntu honetan, EAJrekin akordio batera iritsi direla azpimarratu zuen. Hori dela eta, Jon Antxordoki jeltzalea Euskara Batzordeko buru izango da.



T.VALLÉS

### 5 ELKARRIZKETA Jendea ezagutzea eta esperientziak gozatzea helburu

Eneritz Busto atleta gaztearekin hitz egin dugu Caliko jubenil mailako Munduko txapelketara joan baino lehen. 100 metro hesi proban parte hartuko du Bustok. Nahiz eta finalean egoteko aukerarik ez ikusi, lehiaketan ahal duen guztia emango duela argi du Lasarte. Oriako atleta gazteak.

**Uztailean  
TXINTXARRI  
astelehenetan  
argitaratuko  
da soilik.  
Herriko  
informazio  
guztia  
txintxarri.eus  
atarian**



USURBILGO  
LANBIDE  
ESKOLA

IEFPS USURBIL GLHBI



MATRIKULA epea uztailearen 16tik 21era

Goi-mailako  
Erdi-mailako  
HEZIKETA  
ZIKLOAK



Mekanika



Elektrizitatea



Administraritza



Mantentimientua

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: eskola@lhusurbil.com

## HIRIGINTZA

## Lokalen eraustea geratu da

Amiantoa duten fibrozementuzko hodiak agertu dira. Bi hilabetez atzeratuko dira lanak.

Lasarte-Oriako Udalak San Marcial eta Uzturre plazetako etxe arteko lokalen erausketa hasi zuen apirilaren amaieran. Baina Udalak jakitera eman duenez, lanak geratu behar izan dira amiantoa aurkitu delako. Orain materiala kentzeko Eusko Jaurlaritzaren onespeneren zain daude eta lanak bi hilabetez atzeratuko direla aurreikusten da.

San Marcial eta Uzturre plazetako etxebizitzetako lokalak eraisteko lanak bertan behera gelditu dira aldi baterako.

Lasarte-Oriako Udalak azaldu duenez, "aurreikusitako gabeko kontu bat izan da". Izan ere, erausketa lanak egitean amiantoa duten fibrozementuzko hodiak agertu baitira.

Hauek kentzeko proiektu zehatz bat aurkeztu behar izan dio Udalak Eusko Jaurlaritzari.

**Bi hilabete geldirik**

Orain Jaurlaritzaren onespeneren zain daude eta proiektuak bi hilabeteko luzaera

izatea aurreikusten da.

Apirilean Ibon Rosales udal arkitekto eta Nagore Mitxelena hirigintzako teknikoa azaldu zuten moduan, lanek hiru hilabete eta erdi iraun behar zuten eta abuztu aldera azken pausoak ematea zegoen aurreikusia.

Laneko lehen pausoak eman dira, zangak ireki eta lokalak hustu dira. Erausketa-ekin hasi eta hodiekin topatu dira Muriaseko langileak. Aurkikuntza honek epe guztiak hautsi ditu.

Gainera, Udalak adierazi duenez, amiantodun materiala denez espezializatutako enpresa berezi bat sartuko da hodiak erretiratzera.



San Marcial eta Uzturre plazako lokalen lanak bi hilabetez geratu dira. Telefonikak ere lanak egin behar ditu.

**Telefonikako kableak**

Honetaz gain, Udalak jakitera eman duenez, Telefonikak zonaldeko sarea aldatu eta beheko lokaletako fatxadetik zintzilika dauden kableak kendu behar ditu.

Kableak lurperatzeko beharrezkoa den obra zibila hasi da. "Baina Telefonikak berak aldatu behar du kable-

ria" azpimarratzen du Udalak.

**Udal Gobernuaren penatua**

Udal Gobernuak bere atseka-bea agertu da lanen atzerapena dela eta, "erabat penatzen gaitu atzerapenak. Espero dugu, bizilagunek irrikaz espero duten obra, beheko lokalak eraisteko lanarekin

bukatzea eta agindutako epearen barruan bukatu ahal izatea".

Era berean, Udal Gobernu berriko taldeak zonaldeko gainerako beheko lokalen erausketa proiektuarekin jarraitzeko borondatea agertu du. Eta horretarako behar diren baliabideak jarriko dituzte aurrerantz.

## Memoriaren aztarnategia sortzen

Gainbo Iturri elkarteak 'Elkarbizi' egitasmoaren barruan ekintza berria burutu zuen atzo goizean. Andreas Schäfer eta Alex Carrascosak Gernika Gogoan, Bake museoak eta Bakeola elkarteek Bizkaian martxan duten MemoriaLab proiektua azaldu zieten elkartean bildu ziren herritarrei.

Andreas Schäferrek azaldu zuenez, MemoriaLab proiektua indarkeria politikoaren eta giza eskubideen urraketan inguruko bizipenak partekatzeko gunea da. Proiektua aurrera eramaten ari diren elkarteek proiektu bizi bat garatu nahi dute, lekuetara egokitzen dena. Helburua Euskal Herrian bake askatzai-

le bat lortzea da. Bakea, Schäferren hitzetan, bide luze bat izango litzateke, ez egoera bat, non gatazkak nola konpondu erakutsi eta ikasten den.

**Metodologia**

MemoriaLab baten metodologia ere azaldu zuten. Elkarrizketa eta errespeturako gune lasai batean bildu eta hiru galdera erantzuten saiatzen dira. "Iragana" hitzarekin du zerikusia lehenak: 'Zer gertatu da?'. Bigarrenak berriz, "oraina" du ardatz: 'Zer ikasi dugu iraganetik, orainean lagungarri izan daitekeena?'; hirugarrenak, azkenik, geroan jartzen du fokua: 'Aniztasunaren ikuspuntutik, nola bizi

gaitzeko eta zertan egin dezakegu lan?'

Tailer hauetan burua alde batera utzi eta emozioak ateratzea garrantzitsua dela aipatu zuten. "Ixiltasuna ez ona eta honek ezinegonak sortzen dizkigu."

Teknika batzuen bidez hori landu eta memoria osatzen doaz esperientzia zuzentzen duten kideak. 'Kontarteak' egiten dutela aipatu zuen Carrascosak, "kontakizunen arteko elazioa egiten da. Bakoitzak berea partekatu, guztiena erlazioan eta taldeari jakin araztem zaio".

Era honetara, norbanakoen memorian oinarritutako memoria zabalago bat edo memoria aztarnategi bat



Iritzia eta esperientziak partekatzeko aukera ere izan zuten hurbildu ziren herritarrek.

sortu nahi dute eta honetan herritar guztiek dute lekua.


Honetaz guztiaz gain, Bizkaian egin diren esperientzien berri ere eman zuten.

**Beste lau ekintza**

Joan den larunbatekoaz gain, Gainbo Iturri besterik beste lau ekital-

di antolatu ditu 'Elkarbizi' egitasmoaren baitan. Iraila eta abendua bitartean gauzatuko dituzte, eta hainbat gai jorratuko dituzte horietan.

Hizkuntzak bizikidetzan nola lagun dezakeen aztertuko dute irailaren 19an, Enrique Ayerberen eskutik.

**Diruz laguntzen duten erakundeak****Babeslea**

LASARTE-ORIA  
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

**Laguntzailea****Argitaratzailea:**

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
G-20407557  
**Legezko gordailua:**  
SS513/93  
**ISSN:** 1134-0053  
**Inprimategia**  
Zeroa Multimedia, S.A.  
**Aleak zenbakiko:** 7.800

**txintxarri****Erredakzioa:**

Maidar Azumendi, Inigo Gonzalez, Nerea Eizagirre  
**txintxarri@txintxarri.info**  
**Publizitatea eta administrazioa:**  
Arantza Artola  
**publizitatea@ttakun.com**  
**administrazioa@ttakun.com**  
**Laguntzaileak:**  
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Seguro, Jexux Artebe, Gorka Alvarez, Pako Aizpitarte, Edu Galardi  
**Informatikoa:**  
Xabier Amadoz

## UDALBATZARRA



Joan den asteartean bildu zen lehenengo aldiz Udal berria, udaletxe zaharreko pleno aretoan.

## PSE-EEK eta EAJk zuzenduko dituzte Udal Batzordeak

### Alkatetzaren neurriak onartu zituen udalbatzarrak

**Zinegotzi sozialista eta jeltzaleak izango dira Udal Batzordeen buru, bi alderdiak akordio batera iritsi ostean. Bestalde, hilabete bakoitzeko astearteetan bilduko da udalbatzarra, 18:30ean. Alkate, zinegotzi eta konfiantzazko karguen soldatak duela lau urte ezarritako kopuruen arabera izango dira.**

TXINTXARRI

Udal berria iragan aste-ko asteartean elkartu zen lehen aldiz. Lasarte-Oriak Ahal Du alderdiko Alicia Garcia izan ezik beste zinegotzi guztiak izan ziren pleno aretoan.

Duela lau urte adostu bezala, hilero egingo dituzte ohiko udalbatzarrak, bigarren asteartean, arratsaldeko sei terdietan. Gobernu Batzarra berriz, ostiraletan bilduko da, hilabete bakoitzeko lehenengo eta hirugarren ostiraletan.

Puntu horretan EH Bilduko bozeramaile Pablo Barriok hartu zuen hitza, eta Jesus Zaballos alkateari galdetu zion ea duela lau urte alkatetzatik udalbatzarrera pasatako eskumenak bere horretan jarraituko duten. Alkateak erantzun zion duela lau urte ezarritako akordioan islatzen diren berdinak izango direla.

Zaballosek jakinarazi zuen PSE-EEko zinegotziek besterik ez dutela parte hartuko batzar horretan.

Horrez gain, alkateordeen berri ere eman zuen. Lourdes Acevedo, Agustin Valdivia, Maite Iglesias, Txus Alonso

eta Jose Mari Urdanpilleta izango dira ardura hori hartuko dutenak.

#### Udal Batzordeak

“PSE-EEK ez du gehiengo absolutua Lasarte-Orian, eta akordio batera iritsi da EAJrekin Udal Batzordeak osatzeko orduan”. Hitz horiek, alkateak azaldu zuen ados jarri direla EAJ eta PSE-EE batzordeetako lehendakartzak hartzeko.

EH Bilduk alkateari leporatu zion erabaki horiek “goitik etorritako makro akordio baten ondorio” izan direla, eta ez direla herrian hartu. Lasarte-Oriak Ahal Du-ko bozeramaile Arkaitz Nayak berriz, Udal Batzordeak “soilik bi alderdiren artean” banatu izana kritikatu zuen.

Bederatzi batzorde izango dira guztira: Ogasuna (Jesus Zaballos izango da lehendakaria); Hirigintza, Obrak eta Ingurugiroa (Agustin Valdivia, PSE-EE); Gizarte Zerbitzuak, Berdintasuna, Elkarlana eta Osasuna (Lourdes Acevedo, PSE-EE); Sozioekonomia (Beatriz Juez, PSE-EE); Zerbitzu Publikoak (Jose Mari Urdanpilleta, PSE-EE); Barne Erregimena, Partehartzea eta Gardentasuna (Lourdes Acevedo); Euskara (Jon Antxordoki, EAJ); Kultura eta Hezkuntza (Maite Iglesias, PSE-EE) eta Gazteria, Kirolak eta Festak (Txus Alonso, PSE-EE).

Hilabete bakoitzeko lehen astelehen eta asteartean bilduko dira batzorde horiek. “Euren lana eta zinegotzi kargua arazorik gabe uztartu ahalgo dituzte zinegotziek”, nabarmendu zuen alkateak.

Proposamenaren aurka bozkatu zuen EH Bilduk, eta Pablo Barriok azaldu zuen horren zergatia: “Guretzat oso garrantzitsuak dira herritarren parte-hartzea eta herriko aniztasuna, eta ikusi dugu batzorde horiek desagertu egin direla legegaldi honetan. Galera bat da hori guretzat, bereziki jorratu behar diren gaiak direla uste baitugu”.

Jesus Zaballosek erantzun zuen ondoren, eta zehaztu du herritarren parte-hartzea Barne Erregimeneko batzordearen barnean landuko dela, “dedikazio osoz”. Aniztasunari dagokionean, alkateak azpimarratu zuen Gizarte Zerbitzuen batzordean “berdintasuna” ere sartu dutela: “Genero, arraza, erlijio eta sexu orientazio berdintasuna nahi ditugu guk, ‘Emakumea eta ‘Aniztasuna’ bezalako atalak bereiztu gabe”.

#### Soldatak eta liberazioak

Alkateak, zinegotziek eta konfiantzazko karguek duela lau urte adostutako kopuruak kobratzen jarraituko dute, Zaballos alkateak jakinarazi zuenez. 40.160,54 euro gordin jasoko ditu alkateak, 33.691 lanaldi osoko zinegotziek eta 20.888,98 lanaldi partzialekoek.

Liberazioei dagokionez, PSE-EEko lau kidek (alkateak barne) izango dute izaera hori eta EH Bildu, Lasarte-Oriak Ahal Du eta EAJko zinegotzi banak egun erdiz. “Politikarien ordainsariak are gehiago murriztuko ditugu, liberazio erdi bat gutxiago izango baitute zinegotziek”, azpimarratu zuen Jesus Zaballos alkateak.

## BIYAK BAT

### Eskerrak San Pedro jaietan parte hartzeagatik

Biyak Bat egoitzako zuzendaritzak eskerrak eman nahi dizkie San Pedro jai hauetan antolatutako ekintzetan parte hartu duten bazkide eta herritarrei. Bereziki aipatu nahi dute elkarreko bazkideen presentzia Manuel Lekuonan Biyak Bati egin zitzaion omenaldi beroan. Bertan erakutsitako babesak azpimarratu nahi izan dute Biyak Batetik.

### Karrantzara irteera

Biyak Bat erretiratuen elkarteak uztailaren 29rako, Karrantzara txangoa antolatu du. Irteera goizeko 8:00etan izango da. Goizean, automobil klasikoaren museoa den Loizaga dorrea bisitatuko dute. Indarrak berreskuratzeko, “El Cartero” sagardotegian bazkaldu eta arratsaldean Ibañezeko eliza ezagutuko dute. Honetan bisita gidatua izango dute. Irteeraren preziorri dagokionez, bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte; bazkide ez direnek, berriz, 40 euro. Interesa dueneak izena ematea Biyak Bat egoitzeko bulegoan egin dezake. Gutxienez 45 pertsona behar dira irteera aurrera eramateko.

## ALKATETZA

### Alkatetza herritarrei irekia

Jesus Zaballos alkateak bando bidez jakinarazi du alkatetza egun zehatz batzuetan herritarrei zabalik egongo dela. “Lasarte-Oriako alkate naizen aldetik, nire lehen konpromisoa lasarteoriatar guztiei entzutea da. Ez dut gure udalerrria gobernatzeko beste modurik ulertzen ez bada herritarren kezak, beharrak eta proposamenak aintzat hartuz”.

Era honetara, alkatearekin bilera egin nahi duen edonori arreta eskaintzeko, Alkatetzako bulegoaren ateak irekitzea erabaki du Zaballosek, astelehen eta asteazken arratsaldeetan. Nahi duenak hitzordua eska dezake 943 376 178 telefonora deituz, edo e-mail bat bidaliz, [alkatetza@lasarte-oria.eus](mailto:alkatetza@lasarte-oria.eus) helbidera.

## UDALA

### Ohiko udalbatzarra bihar

Ohiko udalbatzarra izango da bihar 18:30ean. Lehenengo, ekainaren 13ko akta onartu beharko dute jarraian, udala Gipuzkoako Garraioaren Lurralde agintaritzan integratzea erabaki beharko dute eta honetan integratzekotan, erakundean ordezkariak izango direnen izendapena egin. Ohi bezala, galdera eta erreguekin amaituko dute. Bilkura irekia da eta herritarrek honetan izan daitezke baita bukaeran, galderak egin.



### Jangelaren obren epeak betetzea zainduko du Udalak

Lasarte-Oriako Udala aspalditik dago Landaberi ikastolako Gurasoen Elkartearekin eta zuzendaritzarekin batera Garaikoetxea-Landaberi ikastetxean bertan jantoki eskolarraren egoteko lanean.

Udalak ohar bidez jakinarazi duenez, obren erretiroaren ondorioz ikastetxean dagoen kezka jabetzen da.

Horregatik duela gutxi, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Construcciones Moyua, S.A. enpresari lanak esleitu zitzaizkion eman du jakitera, baita lanaren egoeraren berri izateko

hauekin harremanetan jarri direla ere. “Obraren arduradunek emandako informazioaren arabera, egitura exekutatzeko beharrezkoak diren panel aurrefabrikatuak fabrikazio-prozesuan daude dagoeneko. Uztaileko azken astean obraren exekuzioari ekitea aurreikusten dute, eta ezarritako 6 asteko epean bukatzea”.

Obraren exekuzioaren ardura Eusko Jaurlaritzarena den arren, lan horiek zaintzen ariko da Udala, “denon nahia baita obrak gehiago ez atzeratzea”.

# Lasterka, kantuan eta dantzari

## Udako Txokoetako txikiek aspertzeko astirik ez dute izan astean zehar

Udako Txokoak aurrera doaz. Hamaika ekintza burutu zituzten lehengo astean etxeko txiki eta gaztetxoek. Esate baterako, txikiek San Fermin ospatu zuten azteazkenean eta ostiralean, Xumela koruko kide batzuekin batera kantatu eta dantzatu zuten.

### TXINTXARRI

Il-xil-xilik dago, 'Jon Braun', 'Land Roberra', 'Epoitaiata', 'Sorgina pirulina'... Udako Txokoetako txikiek ederki abestu eta dantzatu zuten ostiralean Xumela koruko kide batzuekin batera.

Belaunaldi ezberdinetako pertsonak batu ziren haur abestiak eta dagozkien dantzak erakustera.

Denak batera, txikien ahotsen erritmora helduak bakarrik dantzatu edo alde-rantziz... ez zen aspertzeko astirik izan.

Proposatzen ziren abestien doinu eta pausoak ederki jarraitu zituzten txikiek. Eta helduek ere ikasi zuten abestirik txikien eskutik, hala nola, 'Pausoka, pausoka' kantua.

### San Fermin

"Entzun arren San Fermin zu zaitugu patro! Gidatu gure oinak! Entziero hontan otoi. Gora San Fermin!" abestu zuten astearte eguerdian, San Fermin egunean, Udako Txokoetako txikiek Okendo plazan.

Lehenik Udako Txokoetan lagun izango duten Kirmen Karamarroak ongi etorria egin eta hurrei San Ferminen ohorez abestera animatu zituen.

Abestu ostean, txupina bota eta hiru zezen suhar atera ziren Geltoki kaleko korraletik.

Txikietako batzuk korrika atera ziren, besteak negar, beste batzuk alde batera egin zuten begiraleen laguntzaz laguntxoei lekua utziz.

Zezenen aurrean barre, algarak eta errekorreak ikusi ziren plazan. Batzuk zezenei isatsetik ere tira egin zieten.

Txupina bitan egin zenez, haurrek bitan bizi ahal izan zuten esperientzia. Bigarren aldirian, gainera, gogotsuago ikusten zitzaizkien, zezen gaixoez berriz, atsedena hartzeko gogoia zuten aurpegi-tan. Ederki gozatu zuten txikiek San Fermin egunean.

Hala ere, ez dira Udako Txokoetako ekintzak amaitu, hurrengo ostiralean bertainek hartuko dituzte herriko kaleak Euskal Herriko jaietako desfilearekin.



Entziero berezia izan zen Okendo plazan, deunari abestu eta zezenen aurrean lasterka ibili ziren Udako Txokoetako txikiak.



Xumela koruko hainbat kiderekin batera, ederki astindu zituzten gorputzak eta mingainak.

## Egurra arte bihurtuta

Hainbat herritar hurbildu ziren Antonio Mercero gunera ostegunean, Zurmailu elkarteak antolatu duen erakusketa zuzenean ikustera.

50 pieza baino gehiago ikusi ahal dira bertan, pieza benetan ederrak eta mota askotarikoak daude Antonio Mercero gunean: familia-armarriak, erlojuak, kutzak, aulkiak, bastoiak uzteko piezaren bat edo beste ere bai, koadroak, ispiluak...

Erakusketa horren anitza izatea ez da kasualitatea; urte askoko lana dago atzean. Zurmailu elkarteak 2014ko abenduaren 1ean eratu bazen ere, Lasarte-Oriako Udaleko Kultura sailak duela 18 urte jarri zuen abian zura lantzeko ikastaroa, herritarrei aukera emanez arte diziplina horretan formatzeko. Gaur egun 22 lagunek osatzen dute elkarteak, Jon Ormazabal irakaslearen gidaritzapean.

Era berean, Udalarik "egin-



Zurmailu zurlanketa elkarteko kideak eta udal ordezkariak izan ziren erakusketa zabaltean.

dako ekarpen ekonomikoa" eskertu nahi diote. Beloki familiarentzat (ORVY grafikak) ere esker hitzak dituzte: "Inolako irabazi-interesik gabe utzi dizkiugu Beloki familiak herri honetan dituen lokalak".

### Ordutegia

Astelehenean ostiralera 19:00etatik 21:00etara zabalduko dituzte Antonio Mercero gunearen atek Zurmailu elkar-

tekoek. Larunbatean berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

Erakusketa ikusteko azken eguna uztailearen 19a izango da, eta egun horretan ordu gehiagor egongo da zabalik: 10:00etatik 14:00etara goizean eta 17:30etik 20:00etara arratsaldean.

Herriarrak erakusketara hurbiltzera gonbidatzen dituzte antolatzaileek.



## Giro ederra zineaz gozatzeko

Aurten ere, Okendo zinema taldea eta Lasarte-Oriako Udalararen elkarlanari esker, lasarteorietarrek uda honetan zineaz gozatu ahal dute kalean.

Giro ederrean ostegunean hainbat herritar izan ziren lehengo saioa ikustera gerturatu eta 'La vida inesperada' komediaz gozatu zutenak.

Filmean Jorge Torregrosa zuzendariak New Yorkera joandako aktore baten istorioa kontatzen du, Juanito. Han ez du esperotako arrakasta lortzen eta ahal duen lanetan aritzen da. Bere lehengusu arrakastatsua- ren bisitak agerian utziko du bi

gizonen errealitatea. Adi jarraitu zituzten herritarrek bi pertsonaia hauen tirabira eta New Yorken bizi dituzten nahaste-borrasteak.

### 'Lucy'

Uztailearen 23an, berriz, zientzia fikzioa eta efektu bereziak gogoko dituztenen gustoko filma eskainiko da, Luc Bessonnek zuzendu eta Scarlett Johansson protagonista den 'Lucy' filma.

Hitzordua 22:00etan izango da Okendo plazan. Eguraldi txarra egingo balu, Elizatze plazara eramango da proiektzioa.

Eneritz Busto LOKE klubeko atleta

# “Maite dut atletismoa; beti daukat korrika egiteko gogoa”

Calin ospatuko den jubenilen munduko txapelketan ariko da herriko atleta, hilaren 15etik 19ra

*Eneritz Busto, 17 urte. Lasarteoriatarra. Atleta LOKE. Kurrikulum bat egiten hasteko datuetako batzuk izan daitezke. Beherago joan ohi dira esperientzia eta, zergatik ez, kirol ibilbidean zehar irabazitako txapelketa eta sariak. Asko idatzi beharko luke 2014-2015 denboraldiko azpiatalean: Espainiako txapeldun pista estalian 60 metro hesietan, eta aire librean irabazle 100 metro hesietan. Herriko aurtengo kirolari onena. Eta, etzitik aurrera, Kolonbiako jubenilen munduko txapelketako partaidea.*

Iñigo GONZALEZ

**P**istik kanpo ere hausten ditu markak Eneritz Busto. Kazetariaren grabagailuak ordu bat, 8 minutu eta 9 segundo markatzen ditu. Inoiz egin duen elkarrizketa luzeena izan da.

Denbora oso azkar pasa da, baina ordubete pasatxo hori mamiz beterikoa izan da. Gai ugariren artean egin du jauzi atleta gazteak: Caliko mundiala, jubenilen aire libreko txapelketa, LOKE, zaletasunak, etorkizuna... Hesi artean ere aritzen da saltoka, eta ez gaizki: Calin (Kolonbia) ariko da etzi hasi eta 19ra bitartean, jubenilen munduko txapelketan.

Madrilgo hotel batean igaro zuen atzoko gaua; gaur goizeko zazpitan hartu du hegazkina Kolonbiarantz.

**Bi egun bakarrik falta dira mundiala hasteko. Zer sentitzen duzu?**

Oso pozik nago, jakina, baina urduri ere bai aldi berean. Ez dut guztiz asimilatu oraindik. Dimentsio handia du ekitaldiak, baina Calin bertan egon arte ez diogu hartuko benetan duen neurria: 'Jubenilen munduko txapelketara etorri gara, eta maila goreneko hainbat atletaren aurka ariko gara'.

**Ez da egunero parte hartzen munduko txapelketa**

**batean. Oso presente eduki al duzu asteotan?**

Pentsatu dut horretan, baina argi daukat ezin naizela egon etengabe burua jaten. Aurretik mundiala nola joango den irudikatzeak ez du askorako balio, normalean ez delako zuk espero bezala izango. Konpetitzeko unea iristean ikusiko dut nola nagoen, zer gorputzaldi daukadan. Burua asko jateak nik gutxiago eta okerrago deskantsatzea besterik ez dit eragingo.

**Gero eta gutxiago falta da une hori iristeko.**

Etzi jokatuko dut lehenengo kanporaketa. 17:15 inguruan egingo dugu lasterka. Orduen arteko aldea kontuan hartuta, 11:15 inguru izango dira Lasarte-Orian. Pascual Guerrero izeneko pista moldatu egin dute mundialeko probak hartzeko eta, zuzenean ikusi ez dudana arren, gustatu zait. Urdina da pista! Nire kolore gustukoenetako bat da hori.

**Fase hori gaituz gero, semifinaletara ondoren.**

Hala litzateke, bai, baina ez naiz obsesionatzen horrekin. Jendea ezagutzea eta esperientzia berri honetaz gozatzeko dira helburu nagusiak. Horrek ez du esan nahi oportetara noanik; maila txukuna eman nahi dut, eta federazioko kideei erakutsi ez direla erratu ni hautatzen.

**Mundialerako txartela ekaina amaieran lortu zenuen, Ciudad Realen.**

Espainiako aire libreko txapelketari ekin aurretik gutxieneko markatik 17 ehunetokara nengoan. 14,22 segundoko denbora zen nire onena, eta 14,05 behar nuen. Lehenengo kaleratze fasean lortu nuen gutxieneko hori, eta Bartzelonako atleta Mar Ramirezekin batera -14,00 egin zuen- Calirako sailkatua nengoan.

Semifinaletan behera etorri nintzen apur bat, 13,99ko marka egin arren Ramirezek 13,98 egin zuelako eta 13,92 Iruñeako Miren Bartolomek. Kanpoan nengoan.

Finalean, ordea, irabaztea lortu nuen 14,18 segundoko marka eginda. Horrek eman zidan Calira joateko txartela.

**Hasieran mundialean, gero kanpoan, azkenean berriro barruan. Zenbateraino eragiten dute gorabehera emozional horiek konpetizioan?**

Asko eragin dezakete. Beharbada kanpotik ez da antzematen, baina atletok presio askorekin egiten dugu lasterka. Faktore erabakigarria izan daiteke.

Askok esaten didate ni ez naizela urduri jartzen, baina ez da egia. Nik ere edukitzen ditut nerbioak. Beste era batera bideratzen saiatzen naiz, hori da dena. Ez daukat botere berezirik, urduritasuna ez dut kontrolatzen 'orain eta nik nahi dudalako'. Konpetitzera horrela ateratzen zait, ez dago beste azalpenik.

Oscar Goikoetxea prestatzaileak esan ohi dit hazi egiten naizela samurrak ez diren egoeretan, lehiaketa garrantzitsuetan. Nik, egia esan, ez dakit zer egiten dudana. Konpetitu eta kitto. Maite dut atletismoa, beti daukat korrika egiteko gogoia. Eta are gehiago esango dizut.

**Aurrera...**

Korrikalariak bakarrik egin behar dio aurre konpetizioari. Baina nik ez dut bakarrik egin korrika. Entrenatzaile, LOKEko kide, familia eta lagunak hor egon dira nirekin. Horrek asko balio du niretzako.

Oso gustura sentitu naiz uneoro Oscar Goikoetxea eta Amaia Andres prestatzaileekin. Gertutasuna eta babesa sentitu ditut. Txapelketa ona



eginez gero ederki ospatuko genuela banekien, baina gaizki joanez gero euren besarkada eta animoak bermatuta nituen. Oso garrantzitsua da hori niretzat.

**LOKE aipatu duzu. Kanpotik ikusita kideak oso batuta zaudetela dirudi.**

Sekzio txikia gara, bi prestatzaile eta atleta batzuk, baina oso harreman estua daukagu gure artean. Ordu asko pasatzen ditugu elkarrekin astero, konpetitzen zein entrenatzen. Animo asko ematen dizkiogu elkarri, naiz eta gure ikamikak ere izaten ditugun. Asko maite dugu elkar. Nire twitter kontuan atletismoa kirol bat baino gehiago dela daukat jarrita, eta LOKEren esentzia ere hori dela esango nuke: pertsonak daude atletismoaren gainetik.

**Atleta finak ditugu herrian, urteotan lortzen ari zareten emaitzei begiratu besterik ez dago. Emaitzak bezain onak al dira Michelingo instalazioak?**

Ez, ez dira batere onak. Luze- edo altuera jauziak egiten badituzu, ia zemento gainean ari zara jauzi egiten. Gogorra dago pista eta min ematen du korri egiterakoan... Hobekun-

tzak behar ditu, baina ez gaituzte kontutan hartzen. Kirol diziplina asko dauzkagu herrian; denak zaindu behar dira, ez batzuk bakarrik.

**Atletismoa kirol bat baino gehiago dela esan duzu lehen. Zu ere atleta baino gehiago zara.**

Marrazketa maite dut, orduak eman ditzaket arkatza eta papera eskuan. Lagunak ere garrantzitsuak dira, asko gustatzen zait haiekin egotea. Bideojokoak ere atsegin ditut. Argazki kamera hartzen dut batzuetan, hondartza ere gustatzen zait nahiz eta azkenaldian ez naizen joan, lehiatu aurretik arriskuak saihesteko.

Jakin min handiko pertsona naiz, asko gustatzen zait gauzak zergatik gertatu eta nondik datozen ikustea eta ikastea. Antzinako zibilizazioak, Grezia eta Erroma; mitologia, gauzei zergatiak bilatzeko zuten abilezia hori.

Batxilergo artistikoa egiten dut datorren urtean Usandizagan, Donostian. Gero, kirolari lotutako goi-mailako ikasketak egin nahiko nituzke edo Magisteritza ikasi eta lau garren urtean soinketara biderratu. Kirol arloan urteotan irakatsi didaten guztia transmititzea gustatuko litzaidake.



Elkarrizketa osorik txintxarri.eus webgunean

## LABURRAK.-

## Itoitz Rodriguez hirugarren Valladoliden

Jubenilen Espainiako txapelketa ospatu zen uztailaren 5ean Valladoliden, eta Realeko atleta Itoitz Rodriguezek brontzezko domina kolokatu zuen. 400 metroetan marka pertsonala hautatu zuen (48,24 segundo) final oso ona eginda, baina ezin izan zuen garaipena eskuratu.

Triatloiarri dagokionez, Pasai Donibanen izan zen Pili Bodegas, uztailaren 5ean baita ere. 750 metro egin zituen igerian, 20 kilometro bizikletan eta 5 km. korrika. Ordu bat, 23 minutu eta 36 segundo behar izan zituen ibilbidea osatzeko. Charlotte McShane australiarrek irabazi zuen triatloia 1:16:05 eginda.

## Urriari hasiko da Ostadar Antonio Aroztegia

Oraindik uztailea bada ere, areto-futboleko Liga Nazionalako Hirugarren Mailako egutegia prest dago jada. Urriaren 4an ekingo dio txapelketari Ostadar Antonio Aroztegiak, pasa den denboraldian ligan mantentzea lortu ostean.

Ostadarrez gain, beste 13 talde ariko dira nor baino nor gehiago: Bilbo CFS, Bilkoin FS, Egintza CD, Elorrioko Buskantzak, Goierri KE, Internacional CD, Lagun Onak CDA, Laskorain KE, Meatzari CDF, Presion Break CDFS, Soloarte FS, San Jorge Santurtzi FS eta Sasikoa CD.

Esan bezala, urriaren 4an ekingo diote txapelketari eta maiatzean bukatu, hilaren 8an hain zuzen.

## Txirrindulariak fin Tolosan eta Mendaron

Bazpi txirrindularitza eskolako kadeteek Patxi Rodriguezen XIII. oroimenezkoan hartu zuten parte uztailaren 4an. Hamalau txirrindularitza taldek hartu zuten parte eta Bazpik 6. postua eskuratu zuen taldeen sailkapenean, lau ordu, 34 minutu eta 28 segundoko denbora eginda. Indibidualki, Oier Urbizu izan zen taldeko lehen txirrindularia helmuga zeharkatzen, 13. postuan. Haren atzetik iritsi ziren Luken Carbayeda (28. postuan), Asier Ibarbia (41.ean) eta Manex Altuna (84.ean).

Jubenilen kasuan, Mendaroko VIII. Javier Ezenarro oroimenezkoan izan ziren, uztailaren 4an baita ere. Lasterketa bikaina burutu zuten txirrindulariek eta taldeen sailkapenean hirugarren postuan sailkatzea lortu zuten; 6 ordu, 49 minutu eta 8 segundoko denbora egin zuen taldeak. Ander Amonarriz eta Koldo Velasco bata bestearen atzetik sartu ziren helmugara: 6. eta 7. izan ziren, hurrenez hurren. Iñaki Gomez 23. izan zen sailkapenean eta 50. Imanol Martinez.

## ATLETISMOA.-



## Herritarrek G2H eta Ehunmilak gainditu zituzten

Ostiralean Euskal Herriko mendiko proba gogorrenetarikoa hasiera eman zitzaion arratsaldeko 18:00etan, Ehunmilak. Proba honetako irteeran Javi Olazagoitia herritarra zegoen.

Gaueko 23:00etan berriz, sei herritar izan ziren G2H probari hasiera eman ziotenak: Iñaki Letamendia, Jose Ramon Mendizabal, Peio Fadrique, Xanti Trantxe, Juan Mari Marcos eta Toño Rodriguez.

Hainbat izan ziren bidean geratu ziren korrikariak; lasarte-riarrek aldiz, amaitu zituzten lasterketak. 168 km eta 34 ordu 50 min eta 52 sg ostean, iritsi zen Olazagoitia helmugara. G2Han, berriz, Xanti Trantxek, 13:35:07; Juan Mari Marcosek, 15:22:56; Iñaki Letamendik, 15:29:45; Jose Ramon Mendizabalek, 16:39:04; Peio Fadriquek, 16:56:44 eta Toño Perezek, 17:39:00 behar izan zituzten 88 km ibilbidea egiteko.

## FUTBOLA.-

## Realak Iraia Iparragirre fitxatu du

Añorgan aritu da herritarra azken lau denboraldietan

**Lasarteoriatar bat Realeko lehen taldean ariko da datorren urtean: Iraia Iparragirre 19 urteko atzelaria. Ostadar SKTn hasi zen jokatzeko; Añorgara egin zuen jauzi ondoren. Emakumezkoen lurreko mailan eta bigarren mailan aritu da, eta lehenengora egingo du jauzi aurten.**



Realean ariko da Iraia Iparragirre (eskubian) datorren urtean.

## TXINTXARRI

Rezola zelaitik Zubietako instalazioetara. Emakumezkoen Bigarren Mailatik Lehenengora. Añorgatik Realera. Beste jauzi bat eman du Iraia Iparragirrek bere ibilbidean, duela lau urte herriko Ostadar SKT taldea utzi eta Añorgan hasi zenekoaren tamainakoa. Gipuzkoan erreferente den taldean ariko da, hainbat umek amesten dutena egi bihurtuz. "Niretzat handia izan da ustekabea, ez nuen espero", dio Iparragirrek.

Uztailaren 27an hasiko du aurrendenboraldia Realak. Entrenatzen hasteko irrikitan dago Iraia Iparragirre: "Taldekide berriak ezagutzeko gogoia daukat. Erakargarria da proiektua eta talde polita osatu dugula uste dut".

Emakumezkoen Bigarren Mailan aritua da Iparragirre, 19

urte dituen arren baditu hainbat partidua bizkar gainean. Lehenengo Mailan jokatu du datorren urtean, eta esan du hori gustuko duela: "Gehiago ikasten da horrela".

"Egunerokotasunean lan egin, partidaz partida joan eta borrokatu". Osagai horiekin osatuko du Iparragirrek datorren denboraldiko errezeta. Ez zaio batere gaizki joan orain arte.

## Kopako finalistak

Zazpigarren postuan amaitu zuen liga Añorgak aurreko denboraldian, guztira 26 partidua jokatu eta 41 puntu lortu ostean. Hamalau taldeko liga dela kontuan hartuta, ez ziren batere gaizki aritu.

Ligako txapelketan ongi lehiatu bada ere, Kopan eman

du zeresana Añorgak duela gutxi amaitu den denboraldian. Kaleratze errondak gainditzen joan ostean, finalerako txartela eskuratu zuen taldeak. Koadroaren beste aldeetik Athletic iritsi zen finalera, Bilboko talde boteretsua.

Rezolan jokatu zuten partidua, Añorgaren zelaian. Aurrekariei so eginda, aukerak bazituen etxeko taldeak, Ligan berdindu egin baitzuten Athletic-en kontra. Oraingo honetan ordea, Bizkaia aldera eraman zuen Kopa talde bilbotarrak, 0-2 irabazi ostean.

Datorren urtean edukiko du herriko jokalariek reban-txarako aukera. Eszenatokia ezberdina izango da ordea: Zubietako zelaian, belar naturaleko batean, eta kamiseta txuri-urdina soinean.


## IGERIKETA.-

## Igerilari infantilak bikain Galdakaon

Hainbat domina eta marka berri zakuratu zituzten Buruntzaldea IKTko infantilek Galdakaoko (Bizkaia) Euskal Herriko txapelketan. Uztailaren 4an eta 5ean aritu ziren lehiatzen igerilari gazteak.

Uztailaren 4an zilarrezko domina kolokatu zuen Nahia Jie Villamedianak 200 bizkarreko proban. Era berean, 4x200 erreleboko taldeak marka berria ezartzea lortu zuen, eta Irati Arzalluz igerilariak infantilen Espainiako txapelketarako txartela eskuratu zuen, 50 libreetako proban 30,01 segundoko marka egin ostean. Abuztuaren 3tik 6ra ariko da Arzalluz, Sabadellen (Bartzelona).

Hurrengo egunean, uztailaren 5ean ere emaitza bikainak eskuratu zituzten Buruntzaldea



Buruntzaldea IKTko gaztetxoak ederki lehiatu ziren Galdakaon.

IKTko igerilari gazteak. Nahia Jie Villamedianak beste domina bat irabazi zuen, brontzezko kasu horretan, 200 estiloetan. Irati Arzalluzek ere sasoi betean dagoela erakutsi zuen beste behin, 50 tximeletako proban bigarren postuan geratu eta zilarrezko domina ekarri zuelako bueltan Lasarte-Oriara.

Euskal Herriko txapelketan bakarrik ez, Debako II. Itsas Milan ere izan zituen ordezkariak Buruntzaldea IKT. Emaitza onak erdietsi zituzten proba horretan ere: Unai Geovanny Somovilla gaztea podiumeko lehen kaxoira igo zen, 11 eta 14 urte bitarteko kategoriako irabazlea izan baitzen.

## Agenda

Osteguna, 10:00etatik aurrera, Orian



### Karmengo amaren eguna

Karmengo Amaren eguna ospatuko da Oria auzoan. 10:00etan Solano trikitilariak kaleak girotuko dituzte eta buruhandiak aterako dira, 11:00etan haur tailerrak izango dira, 12:00etan Meza Nagusia hasiko da Karmengo kaperan, 17:00etan gaztelu puzgarriak, 18:00etan sorgin dantza auzoan barrena ikusteko aukera izango da eta 20:00etan berriz dantza egiteko unea izango da Ibai Berriak-en eskutik, Brunet parkean. Herri-tarrak Oriako jaietara gerturatzeko animatzen dituzte antolatzaileak.

### Jaiak

OKENDO PLAZA

Igandea 26, 22:00etan

Santa Ana parodia antzeztuko dute herritarrek. Egun osoan zehar hainbat ekintza burutuko dira ohiturari jarraikiz.



### Erakusketa

ANTONIO MERCERO ERAKUSKETA GUNEA

Uztailaren 19ra arte

Zurmailu zurlanketa elkarteko kideek egindako lana ikusteko aukera izango da.

### Lasarte-Oria

#### Antzerkia

OKENDO PLAZA

Osteguna 16, 19:00etan

Eidabe K.E-ren "Sardina Freskua" haurrentzako jai-berbena. Eusko Jaurlearitzako kale antzerkia bultzatuz ekimeneko saioa izango da.



Ostirala 17, 20:00etan

Malas Compañías taldearen "Txatarra" lanaz gozatu ahal izango

da. Hau ere Eusko Jaurlearitzako kale antzerkia bultzatuz ekimeneko saioa izango da.



#### Azoka

OKENDO PLAZA

Igandea 19, egun osoa

Urtero legez, XXXI. Santa Ana Artisanaz azoka ospatuko da. Sendoki Kultur Batzordeak antolatutako urteroko hitzordua da eta bertan izango dira herriko artisauak euren lanak erakusten.

### Zinea

OKENDO PLAZA

Osteguna 23, 22:00etan

"Lucy" filma eskainiko da. Scarlett Johansson eta Morgan Freeman aktoreak protagonista dituen thriller-ra da. Droga garraiatzea behartuta aurkitzen den emakumearen istorioa kontatzen da. Eguraldi txarra egitekotan Elizatze plazan egingo da proiektzioa. Gaztelaraz.



JALGI KAFE-ANTZOKIA

Uztailean zehar

Miguel Angel Felipe herritarrek Lasarte-Oria eta Zubietako kaleetako irudietan oinarritutako margoak ikusgai ditu.

### Andoain

#### Jaiak

Ostirala, 19:00etan

Karrikako jaiak ospatuko dira ostiralek igandera bitartean Andoainen. Ostiralean 19:00etan jaurtikoko txupinazoa eta hortik aurrera, haurrentzako ekintzak izango dira, kontzertuak, dantza eta hamaika ekimen. Play Back lehiaketa ere egingo da.

## Herritarren txokoa

#### Alboka Txikin parte hartu

Hurrengo ikasturtean Alboka Txiki Abesbatza (6-14 urte) parte hartu nahi duenek idatzi dezakete [info@albokaabesbatza.com](mailto:info@albokaabesbatza.com) helbidera eta apuntatzeko egunetan abisatuko zaie izena modu ofizialean emateko.

#### Oriatarren bazkaria

Karmengo Amaren egunean, uztailearen 16an, Oriatarren bazkaria antolatu dute El Jardin jatetxean.

Aurten Karmengo Amaren kaperaren 75. urteurrena ospatuko dute eta On Ramon Uribeberria apaiari omenaldi txikia egingo zaio urte hauetan egindako zerbitzua-rengatik.

Bazkariak gozatu nahi duten herritarrek jatetxean bertan eman behar dute izena.

Menua 30 euro dira eta haurrentzako bi menu daude, bata 8 eurokoa eta bestea 12 eurokoa.

## Sarean



### Botiketan euskaraz egiteko hiztegia

FEUSE Farmazialari Euskaldunen Elkarteak 3.600 sarreratik gorako hiztegi elebidun berria aurkeztu du, eta [feuse.info](http://feuse.info) webgunean kontsultagai jarri du. 16 ataletan banatutako terminoak biltzen ditu UZEIk FEUSE Farmazialari Euskaldunen Elkartearentzat prestatu duen hiztegi honek.

Lehenago, 2002an, beste hiztegi txikiago bat prestatu zuen UZEIk FEUSErentzat. Oraingo honek, hain zuzen ere, hura hartu du oinarri, eta corpus zabalago batetik abiatuta eguneratu eta osatu da hiztegi berria. Besteak beste, EHUko irakasgaietako materiala eta ospitalez kanpoko jarduerak farmazeutikoan erabiltzen diren arau eta inprimaki nagusien bilduma erabili dira termino berrien iturri gisa.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 [txintzarri@txintzarri.info](mailto:txintzarri@txintzarri.info)

# Oria eta Basaundiko Jaiak uztailean

Ostegunean, Karmengo Amaren eguna ospatuko da, baita kaperaren 75. urteurrena ere

Oriako Karmengo Ama eta Basaundiko San Inazio Jaiak antolatuko ditu aurten ere La Esperanza auzo elkarteak hainbat elkarteren laguntzaz. Udalaren laguntza ere izango du eta asteazkenean sinatu zuten hitzarmena.

**K**armengo amaren eguna ospatuko da, uztailearen 16an, osteguna Orian.

Oriatarrek eta auzora hurbiltzen diren herritarrek goizeko 10:00etatik aurrera hainbat ekintzaz gozatu ahaliko dute.

Solano taldearen trikitilariak auzoa esnatuko dute.

Buruhandiak eta haur taile-rrak izango dira kaperaren ondoko plazan.

Egurdiko meza nagusian Pilar Catalina eta Amaia Lizarraga sopranoen ahotsa entzuteko aukera izango da Gerardo Rifon organista lagun dutela.

Amaitzean, Plazido Muxika enparantzan luntxa izango da.

14:30ak aldera, berri, oriatarren urteroko bazkaria egingo da El Jardin jatetxean. Honetan On Ramon Uribebebarria apai-za omenduko dute.

Arratsaldean, Brunet-Enea lorategian izango dira ekintzak. Haurrentzako gaztelu puzgarriak eta ur-globo gerra edo Oriako Sorgin dantza eta Ibai Berriak taldearen doinuak izango dira.

## Kaperaren 75. urteurrena

Honetaz gain, Karmengo maren 75. urteurrena ospatuko dute, nahiz eta data zehatza azaroan izan. "Ospakizun xumea izango da ezer berezirik ez baita egingo," adierazi du Juan Rodriguez La Esperanza elkarteak kideak.

1940ko azaroaren 6an Javier Lauzurika Gasteizko go-tzainak bedekatu eta ateak ireki zituen Karmengo amaren kaperak.

Kaperaren Hondarribiko Sagazazu arkitektoak eraiki zuen, dirua berri Brunet familiako kide eta hainbat oriatarrek jarri zuten. Amabirjinaren irudia eskultore katalan batek egin zuen.

Egun handia izan zen Oriako auzotarrentzat, elkargune berri bat osatzen baitzen. Inaugurazioan Brunetarrak izan ziren, Juan Egizabal auzo-alkatea, baita auzotarrak ere.

## San Inazio eguna

Basaundiko auzotarrek, berri,



Oria auzoan Karmengo amaren eguna ospatuko da ostegunean eta honekin batera, kaperako 75. urteurrena.

hilabete bukaeran, uztailearen 30ean eta 31an, San Inazio eguna ospatuko dute.

Uztailearen 30ean, 18:00etatik aurrera, haur taile-rrak eta 20:00etan, musika kontzertua izango dira.

San Inazio egunean, uztailearen 31ean, Buruntz-Azpi elkarteak antolatuta martxa erregulatu, galeper botatzea eta pote eta toka txapelketa izango dira goizean zehar.

Etxeko txikiak haur jolasak eta buruhandiek primeran gozatzeko aukera izango dute.

Ostean, meza nagusia izango da.

Buruntz-Azpi elkarteak bazkideen bazkariak gain, berrikuntza bat egongo da Oria Txiki antolatutako bazkari herrikoia. "Pixkanaka ohitura bilakatzea espero dugu," aipatu du Rodriguezek.

Arratsaldean berri, haurrei zuzendutako ekintzak eta kirol ekintzak izango dira nagusi. Puzgarriak, haurrentzako merienda, pala txapelketa, ezkondu eta ezkondu gabekoen arteko futbol partida eta apar festa.

Musika ere izango du bere tarteak. Zero Sette akordeoi orkestrak kontzertua eskainiko du eta Ibai Berriak taldearekin dantza egin ahaliko da.

## Gonbita

Hamaika ekintza antolatu dira hiru egunetan, baina haurren ekintzak azpimarratu nahi izan ditu La Esperanza elkarteak kideak.

Esate baterako, Udaleko kultura sailak antolatutako taile-rrak izango dira eta hauetan haurrak egotea nahiko lukete. Horregatik auzoko, zein herriko haurrei hauetan parte hartzeko gonbita egiten die elkarteak.

## Hitzarmen sinatzea

Jai hauek aurrera eraman ahal izateko, asteazkenean Lasarte-Oriako Udalak eta La Esperanza auzo elkarteak hitzarmena sinatu zuten.

Jesus Zaballos alkatea, Juan Rodriguez eta Manolo Urdampilleta La Esperanza auzo elkareren izenean eta Xabier Goitia teknikaria izan ziren hitzarmen-sinatzearen ekitaldian.

Honen bitartez, Udalak 3.574 euro bideratuko ditu uztailearen 16an, 30ean eta 31n ospatuko diren jaiak antolatzeko.

Honetaz gain, Udalak hainbat baliabide jarriko ditu elkartearen eskura eta esate baterako, haurrentzako taile-rraren kontratazioa bere gain

hartuko du. La Esperanza elkarteak aldiz, hiru konpromiso hartzen ditu, jaiak antolatu eta kudeatzea, segurua egitea eta inolako diskriminazioz eragingo ez duten arauak ezartzea.

## Eskerrak

Juan Rodriguezek La Esperanza elkartearen izenean, eskerrak eman zizkion Udalari egindako esfortzu ekonomikoagatik, "antolakuntzarako genuen diru kopurua handitu da eta hori eskertzekoa da".

Era berean, jaiak antolatzeko laguntzen dieten elkarte eta erakundeei ere eskerrak eman zizkien.

Jesus Zaballos alkatea aipatu zuenez, "aurten Oria eta Basaundi auzoetako jaiak bul-tzada handiagoa eman nahi genien. Horregatik sinatu dugu hitzarmen hau". "Hurrengo urteei begira ere dagoeneko lanean gaude," aurreratu zuen.

Era berean, kultura eta jaiak deszentralizatzearen alde lan egingo dutela azpimarratu zuen agerraldian. "Auzo guztiek kultura eta jaiak izateko lan egingo dugu. Egun Zabaleta edo orain Oria eta Basaundik dituzten bezala, beste auzoek haien jaiak antolatzeko babesa emango dugu".



Haurrei zuzendutako ekintza ugari antolatu dira Basaundiko San Inazio jaietan.

**Bideo Lagunak**  
**TIEN 21**  
 Etxekotesna elektrikoetan adituak

Etorri erakusketako produktu berriak ikustera

Beherapen handiak!  
 Ez galdu aukera!!!

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | [www.bideolagunak.com](http://www.bideolagunak.com)

**Ttakun Kultur Elkarteak**  
**JALGI TABERNA**  
**ERRENTAN**  
 ematen du

Interesatuak deitu 943 371 448 telefonora edo idatzi [ttakun@ttakun.com](mailto:ttakun@ttakun.com) helbidera uztailearen 20a aurretik.